



Euskal Herriaren
bakearen aldeko
konferentzia
humanitarioa

Parise 2015/06/11





AURKIBIDEA

Harrera hitzartzeak

> **p.3**

Konferentziaren hasiera

> **p.5**

Berradiskidetzeta eta elkarbizitza : biktinek bake prozesu baten baitan duten tokia

> **p.8**

Presoak bake prozesu baten baitan : erronkak eta funtzioa

> **p.11**

Lanen sintesia

> **p.14**

«Euskal Herriko bakearen aldeko adierazpenaren» irakurketa

> **p.18**

Glosarioa > **p.20**

Gehigarriak > **p.28**

Lau urte dira, gatazkaren alde guziak kontuan hartuz, euskal gatazkari aterabide demokratiko eta baketsua aurkitzeko baldintza ezin hobeak daudela.

Aieteko Nazioarteko Konferentziaz geroztik (2001eko urriaren 17an, Donostiako Bakearen etxea), Nazioarteko komunitateak konponbiderako prozesu hau laguntzeko engaiamendua hartu zuen. Honek, bide orri bat proposatu zuen eta ETA erakunde armatuak, jarduera armatuaren amaiera iragarri eta Espainiako eta Frantziako Estatuekin hitz egiteko borondatea erakutsiz erantzun zuen.

Bi gertakari garrantzitsu horiek eman zirenetik, nazioarteko komunitateak zein euskal jendarteak prozesuari erakutsi dioten sostengua emendatuz eta aniztuz joan da.

Tokiko klase politikoaren gehiengoak bat egiten du gatazka honi aterabide demokratikoa aurkitu behar zaiola esateko orduan eta zentzu horretan jarraitzen du lanean. Hartara, Aieteko Konferentzian parte hartu zuten Iparraldekoek, adierazpen bateratua plazaratu zuten 2014ean.

Era berean gero eta sentsibilizatuago den jendarte zibila, gatazkaren konponbidean aitzina jotzeko beharra berresteko asmoz, bakearen aldeko forumak, eztabaida publikoak, bilkurak edo manifestaldiak antolatuz eta hauetan parte hartuz mobilizatzen da.

Bilakaera hori kontuan harturik eta egiteko dagoen bidea luzea dela oharturik, Harremanetarako Nazioarteko Taldeak, Giza Eskubideen aldeko Ligak, Conciliation Resources-ek, Berghof Fundazioak, Bakearen aldeko Foro Sozialak eta Bake Bideak 2015eko ekainaren 11n Pariseko Asanblada Nazionalen, Euskal Herriaren aldeko bakearen aldeko Konferentzia humanitaria antolatu zuten, tendentzia ezberdinetako parlamentarik osaturiko talde baten sostenguekin.

Konferentzia hori, Frantses administrazio peko lurraldeko eta Pariseko jendarte zibila osatzen duten egitura guzientzat zabalik zegoen eta Euskal Herriko prozesuaren egoera azaltzeko eta berradiskidetzaren problematikaren eta presoek prozesuetan duten zereginaren inguruan hausnartzeko aukera izan zen.

Ipar Irlandako eta Hego Afrikako prozesuen argiztapenak eskuratzeko eta Euskal Herriko testuinguru politiko berrian jokoan dagoena ulertzeko ere balio izan zuen. Halaber, nazioarteko adituei eta euskal gatazkaren konponbidean engeiatu direnei hitza emana izan zaie, gatazkaren baitan bizi izan dutenaren eta pairatu dituzten ondorioen zuzeneko lekukotasuna agertzeko aukera emanez.

Dokumentu honek konferentziaren sintesia soilik agertzen du. Nahi izanez gero, hizlarien hitzaldi osoak www.bakebidea.com gunean aurki zenitzake.

¹ Ik. Glosarioa, "Aieteko Nazioarteko konferentzia", p. 22

² Ik. Emendakinak, p. 28

³ Ik. Glosarioa, "Harremanetarako Nazioarteko Taldea", p. 23

⁴ Ik. Glosarioa, "Giza Eskubideen aldeko Liga", p. 24

⁵ Ik. Glosarioa, "Conciliation Resources", p. 22

⁶ Ik. Glosarioa, "Berghof Fundazioa", p. 20

⁷ Ik. Glosarioa, "Bakearen aldeko Foro Sozialak", p. 22

⁸ Ik. Glosarioa, "Bake Bidea", p. 20

⁹ Ik. Glosarioa, "Babesle Taldea", p. 23

¹⁰ Ik. Glosarioa, "Frantses administrazio peko lurraldea", p. 24



1. Harrera hitzartzeak

Konferentzia hiru lehendakarien ongi etorrirako hitzekin abiatu zen, Louis Joinet, epailea eta kasazio gorteko abokatu nagusi goren ohia, Marc Gentilini, Medikuntza Akademiako eta Frantziako Gurutze Gorriko ohorezko lehendakaria eta Anaiz Funosas, Bake Bideako lehendakaria.

Michel Rocard-ek, Frantziako Lehen Ministro Ohiak, konferentziarako prestatu zuen hitzaldia Marc Gentilini irakurri zuen.



Paul Molac, Morbihaneko 4. barrutiko diputatua, konferentzia babesten duen parlamentari taldeko kidea.

«Ongi etorri, Bienvenidos, Degemer mat, Welcome, Bienvenue Asanblada Nazionalea.

Konferentzia hau burutu ahal izateko, EELV taldekook Asanblada Nazionalekoa den Victor Hugo gela hau erreserbatzeko erabakia hartu dugu.

Gela honetan zuen harrera egiteak zinez pozten nau, arrazoi ohoretsu bat laguntzeko baikaude hemen. Bake prozesuaren etapa gehigarria izatea nahi dugu

eta, hala espero dut, mugari bihurtuko dena. Euskal Herrian oraindik korapilatsua den Bake prozesuarena. Gure artean, mota horretako gatazkak konpontzen aritu den jendea dugu; bai Irlandan, bai Kanakian edo Hego Afrikan ere. Bake prozesu honi gure alea gehitzeko gaude hemen.

Bake prozesu hau hemen garen parlamentarien ize-nean sustengatzen dugula esan dezaket eta burura joanen dela espero dugu..»



Anaiz Funosas, Bake Bidea mugimendu zibileko eta konferentzia bereko lehendakaria.

« Egun on deni. Gaur honaino etorri diren guzientzat eta bereziki Euskal Herriko etorri direnentzako aipamen berezia egin nahi nuke. Biziki garrantzitsua da Bake Bidearentzat Euskal Herriko jendarte zibila gaurko egunarekin lotzea, Aieteko adierazpenaren ondotik, denborarik galdu gabe, zegokion betebeharra bere gain hartu eta bake prozesuaren akuilu bilakatzeko ardura hartu duelako. Hunkituak gaude asanblada honetan horrelako aniztasuna ikustean. Hastapeneko sostenguak, gaurko sostenguak eta agian biharkoak ere. Egun, prozesuaren aitzina eta atzera pausuak azalduko ditugu eta gatazkak sorturiko oztopo eta

sufrimenduen agertoki ere izatea nahiko genuke, horretarako etorri baikara.

Gure desmartxa sostengatu duten eta gaurkoa posible egin duten parlamentari guziak eskertu nahi nituzke, bereziki Aieteko konferentziaz geroztik prozesu honen alde lanean ari diren Euskal Herriko parlamentariak.

Gaur, hemen, esperantza handiarekin gaude eta etorkizuna elkarrekin eraikitzen dugun konbentzimendurekin.»



Marc Gentilini, medikuntza Akademiako eta frantses Gurutze Gorriko ohorezko lehendakari.

« JeOhere handia da niretzat Michel Rocard-ek biltzar honi zuzentzen dion mezua irakurtzea egokitu izana:

« Adiskide maiteok,

Kofi Annanen inguruan elkaturik, Aieteko Nazioarteko konferentziaz geroztik Bake giroa da Euskal Herrian. Matignonen ardurak nituenean, gaur duzuen lehendakariarekin, Louis Joinetekin, elkarrizketak bortizkeriari gaina har ziezaion behin baino gehiagotan ahalegindu ginen, Kanakian egin genuen bezala. Tentsioak gori gorian zirenez saiakera antzuak izan ziren.

2011ko urtarrilaz geroztik, armak isildu ziren egunetik, egoera aldatu da. Pariseko Asanblada Aazionalera esperantza dakarren konferentzia hau da horren lekuko argiena. Zinezko bake iraunkorarekin bat eginez, denak errespetatuz eta batez ere biktima guziak errespetatuz zuekin bat egiten dut gaur.

Michel Rocard »

Lehendakari Jauna, hitz pertsonal batzuk gehitu nahiko nituzke:

Ene inguruan ekimen honen berri eman dudalarik "zertara zoaz euskaldunengana?" esan didate, Guinearen kasuan "zertara zoaz Guineara?" esaten didaten bezala. Beti bada ekitea eragotziko ligukeen zerbait. Ni zuen artean egon nadin konbentzitzeko desmarxak burutu dituen Gabriel Mouescari erantzunez etorri naiz, "bakea" hitzak erakarri bainau. Bakearen alde egiteak bultzatu nau zuen gonbidapenari baiezkoarekin erantzutera eta zuetariko anitzek ezagutzen duten pasarte gogorak bizi izan dituen Gabriel Mouesca ezagutzeko parada izan nuen Frantses Gurutze Gorriaren lehendakaria nintzelarik. Elkarlanean hasi eta gauza baliosak egin genituen eta ni bere konbikzioez oroitzen naiz bera nireez oroitzen den bezala. Orduan jada bortizkeriaren aurka nintzen, guztiz arbuiatzen nuen eta independentziek ez nindutela interesatzen ere esan nion. Garrantzitsuena interdependentsia zela pentsatzen nuela azaldu nion, ikuspuntu beraren elkargunean bildu eta elkarrekin aitzina egin ahal izateko. Hara zergatik nagoen gaur hemen eta gonbidatzeagatik eskertzen zaituztet. Konferentzia honetaz harago, burutuko dituzuen desmarxak laguntzeko eta burura hel daitezen lan egiteko prest nauzue.

Mila esker..»



2.

Euskal Herriko bake prozesuaren jatorria eta egoeraren azterketa

Pierre Joxe, Frantziako Defentsa ministro ohiak eta Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa taldeko beste hiru ordezkariak, 2011n Euskal Herrian abiatu zen prozesuaren jatorria eginez eta egoera aurkeztuz eman zioten hasiera Konferentziari.

Lehenik, Pierre Joxek euskal gatazkarekiko berak zuen esperientziari buruz mintzatu zen eta honen jatorri politikoa agerian utzi. Bere aburuz, gatazka honen konponbidea Espainiak eta Frantziak armen eta presoenginguruan aurrerapausoak emateko duten borondate politikoen menpe dago, beste herri batzuetan, Irlandan bereziki, gertatu den bezala.

Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa Taldeko ¹¹ kide

diren Frédérique Espagnac eta Max Brisson analisia horrekin bat zetozen. Hauek, burutu zuten lanaren bilakaera eta gaur egungo egoera taldearen izenean aurkeztu zuten.

Jendarte zibilak eta honen ordezkariak Aieteko bide orriarekin bat egiten zutela, tokiko ordezkari politikoeak lau urte zeramatzatela zentzu horretan lanean eta hala ere Espainiako zein Frantziako Estatuak erantzun gisa ezaxola baizik ez zutela ematen gogorarazi zuten.

Ordezkariek politikoen horiek, Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa Taldearen izenean, bi estatuei konponbidearen hautua egiteko eskatu zieten eta eragileei politikoen, sozial, sindikalei eta parlamentariei zentzu horretan jarduteko deialdia luzatu.



Pierre Joxe, abokatua, Barne eta Defentsa ministro ohia, Aieteko adierazpenaren izenpetzaile.

“Gai humanitarioa da, baina gai politikoa bilakatzen da (...) Lortua dirudien bakea egonkortzeko balioko lukeen elementua, presoenginguruen arazoa tratatzea, konpontzea eta aurrera pausoak ematea litzateke.”

Pierre Joxek, euskal gatazkari buruzko bilkura anitzetan parte hartu zuen, hala nola politika, polizia edota militar arloko bilera frantesetan zein frantses-espainoletan. Euskal Herriak azken urteetan bizi duen egoera ezberdina da eta bere aburuz, arazo humanitarioan eta presoenginguruen arazoaren inguruan urgentez elkartzeko beharra dago. Euskal Herria Frantziaren ere dagoenez, arazoak garrantzia handia du beretzat. Gaur egun bi arazo daude konpontzeko: jendea eta armak, eta borondate politikoa izanez gero konpon daitezkeen arazoak direla deritzo. Bere ustez, humanitario izendapena zuen konferentzia horrek ehunka jenderengan sorturiko sufrimendua agerian utzi zuen, presoenginguruen problematikaren inguruan bereziki, eta Frantziako estatuak epe motzean konpon lezakeela

eta lehenbailehen konpondu beharko lukeela pentsatzen du. Aurrerapauso horiek, gobernuarentzako ez liratekeela kostu handikoak gaineratu zuen.

Azkenik, konferentziak gatazkaren konponbidearen ezaugarri humanitarioa agerian utzi zuen, gatazka bera politikoa dela azpimarratuz. Gatazkaren garai biziki bortitzak gogoratu bazituen, ETA ¹² erakunde armatuko arduradunek bilakaera geldo baina etenik gabean parte hartu dutela eta gaur egun beste egoera batera iristeko borondatea agertzen dutela ohartarazi zuen. Aldaketa horretan, beste toki batzuetan gertatu den bezala, Irlandako kasuan adibidez, jendarte guztiak eta batez ere Frantziako Estatuak engaiatu beharko luketela zeritzon.

¹¹ Ik. Glosarioa, “Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa Taldea”, 23 or.

¹² Ik. Glosarioa, “Euskadi Ta Askatasuna (ETA)”, 22 or.

Frantziako Elkarrizketa Taldeko hiru kideren eskutik, bake prozesuaren egoeraren azterketa



Jean-Jacques Lasserre, Senataria eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluko lehendakaria.

“Euskal Herrian irekitzen den orrialde berri hau bere proiektu eta anbizio propioetan oinarritu behar da, eta partekatu behar duguna bakearen esperantza hori da.”

Jean Jacques Lasserre, bake prozesuan engaia-tuak diren jatorri politiko ezberdinetako politikariz osatua den “Frantziako Euskal Herriko Elkarrizketa Taldeko” kide gisa adierazpenak egin zituen lehena izan zen, eta hori Aieteko nazioarteko Konferentziaren biharamunean berean. Hastapen batean, hautetsi karguan burutu zituen agintaldi guztietan, Euskal Herriko hautetsien Kontseiluko ¹³ lehendakaria zenean batez ere, Euskal Herriko biztanleria elkarrizketaren aldekoa zela egiaztatu ahal izan zuela oroitarazi zuen. Bere iritziz, azken urte hauetan

tokiko beste hautetsiekin partekatzen duen esperientzia hori, hots bakea atzimatea xerkatzen duen konferentzia eta jarduna bera, gizateriaren konkista ederrena da.

Hargatik, konferentzia horretan berean denak egon baziren, Espainiako eta Frantziako estatuei sortzen ari den bakerako proiektu horretan engaia daitezen eskatzeko zela eta gaur egun oraindik agertzen duten entzungorra onartezina dela jakinarazteko izan zen.



Frédérique Espagnac, Pirinio Atlantikoetako Senatari

“Aieteko puntu guztietan oinarritu gara eta gutariko bakoitzaren bizipenei eta egin genitzakeen ekarpenei buruzko testu bat idatzi dugu eta horren sintesia egin.”

Frédérique Espagnac-ek, Aieteko nazioarteko Konferentzian parte hartu zuten Ipar Euskal Herriko hautetsien engaiamendua berretsi zuen. Bere iritziz, garrantzitsuena aitzina pausoak ematea da eta hartara Lokarri ¹⁴ elkarteak taldeari aurrera egiten lagunduzion.

Lau urte horiek lau hitzetan laburbildu zituen:

- konfiantza, ibilbide ezberdinen gainetik,
- errespetua,


- elkarrizketa, diskrezioa eskatu zuten topaketen zimendu,
- metodologia, elkarrekin buruturiko lanak aitzina jo zezan eta manten zedin plantan ezarri behar izan zena.

Aieteko Adierazpenean ¹⁵ oinarriturik, bakoitzak bere proposamenak aurkeztu zituen eta eztabaidatu ondoren, adierazpen horrek irudikatzen zuen adostasunera iritsi ziren.

¹³ Ik. Glosarioa, “Euskal Herriko hautetsien Kontseilua”, 22 or.

¹⁴ Ik. Glosarioa “Lokarri”, 24 or.

¹⁵ Ik. Emendakinak, 27 or.



Max Brisson, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluko lehendakariorde gorena. Pirinio Atlantikoetako Les Républicains alderdiko departamendu idazkaria.

“Euskal Herriak bakea nahi duen honetan, elkarrekin daramagun lan hau deusezta dezakeen ezaxolaren murrurekin egiten dugu topo.”

Aieteko konferentziaren ondotik, hainbesteko sufri-mendua sortu duen gatazka honek ireki dituen eta oraindik itxi gabe dauden zauriak artatzeko molde bakarra elkarrizketa dela sinetsirik, Frantziako administrazio pean diren Euskal Herriko hautetsiek elkar ikusten jarraitu zutela eta era informalean bildu zirela azaldu zuen. Talde honek 2014ko urriaren 24an, Aiete iragan eta hiru urtera eta hainbat bilkuraren ondotik, Frantziako administrazio pean diren Euskal Herriko indar politiko eta sozialaren gehiengoa irudikatzen duen “Baionakoa” deritzon adierazpena argitaratu zuen. Adierazpen hori egiaztapen simple batetik abiatu zen: gatazkari konponbidea ematea

lurralde honetako politika eta gizarte ordezkariak dagokie eta ondorioz Frantziako gobernuari ere. Adierazpenak, bake prozesuan aitzina egiteko gisan, presoen gaiaren, armagabetzearen eta Frantziako administrazio pean diren Euskal Herriko aitortza instituzionalaren inguruko proposamenak barne dituela azpimarratu zuen.

Gauzak hola, “Frantziako Elkarrizketa Taldearen” izenean, sortu zen elkar-aditzea ez zedin desegin eta euskal gatazkaren historian gertatu diren gertakari mingarriak errepika ez zitezen, Frantziako estatuari gatazkaren konponbidean engaia zedin eskatuko zion.





3.

Berradiskidetzea eta elkarbizitza : biktimek bake prozesu baten baitan duten tokia



Pierre Hazanek, Aiete iragan eta lau urtera gatazkaren ondorioei aurre egiteko garaia zela azpimarratuz hasi zuen bere aurkezpen hitzaldia. Hartara, biktima guzien aitortza urgentziazko kontua zela adierazi zuen.

Berradiskidetzeari eta elkarbizitzari buruzko lehen saio honek, bertan ziren biktimen lekukotasunaren eraginez batez ere, zirrara handia sortu zuen asanbladaren baitan. Bakoitzak, biktima guzien aitortzaren eta elkarriketaren beharra aldarrikatu zuten. Biktimek, etorkizunean gertakari berak ez errepikatzeke eta sufrimendua ekiditeko prebentzio lanean ardura dutela esan zuten. Mina gainditzeko eta gorrotorik gabeko etorkizuna eraikitzeke moldea, elkartzea eta hitz egitea dela argitu zuten.

Brandon Hamberrek, berradiskidetzea ahalbidetu dezaketen tresnak plantan eman daitezkeela gogoraraziz amaitu zuen. Hego Afrikako "Egia eta Berradiskidetze Batzordeen"¹⁶ esperientzia bizi izan bazuen ere, egoera bakoitzak egoikituko zaion tresnaren beharra duela eta horrek dinamika bikoitzera daramala esan zuen: justizia, aitortza eta egia ekarriko dituen koadro instituzionala sortzea alde batetik eta jendarte zibilaren lana bestetik.

¹⁶Ik. Glosarioa: "Egia eta Berradiskidetze Batzordea", 22 or.



Aitzinsolasa

Pierre Hazan, Nazio Batuetako kontseilari politiko ohia, Neuchâteleko Unibertsitateko irakasle asoziatua, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kide.

“Gaur, Aietez geroztik lau urte iragan diren honetan, Aieteri amaiera emateko garaia da. (...) mila bat pertsona hil eta milaka zauritu utzi dituen bost hamarkadako bortizkeriaren ondorioak kudeatzeaz ari gara.”

Pierre Hazanek, bere aitzinsolasean Aieteko Konferentziak euskal gatazkaren historian izan duen garrantzia izan zuen hizpide, batez ere jendarte zibilak gatazkaren konponbidean aurrera egiteko duen borondatea agerian utzi zuelako. Lau urte iragan eta, “Aieteri amaiera” emateko garaia zela iruditzen zitzaion, gatazkaren ondorio guztiak kudeatu behar zirela, hots gatazkak

milaka jenderengan sortu duen sufrimendua, armagabetzearen gaia eta presoan arazoa. Bere hitzaldia haatik, bi aldeetatik pairatu izan den sufrimenduari buruzkoa izan zen eta horretarako Euskal erkidegoko gobernuak¹⁷ buruturiko ikerketa bat aipatu zuen. Gatazka bateko biktimen guztien aitortza ezinbestekoa zela eta urgentziaz erdietsi beharreko osagaia zela esanez amaitu zuen.



Lekukotasuna

Roberto Manrique, ETA-k 1987an Bartzelonan buruturiko ekintza batean zauritua.

“Ezagutzen dudan biktimen ehuneko handi batek nahi dugun gauza bakarra da, legea eskuan, ahal den guziaz egitea pairatu duguna ez dezan nehork ere berriz ere pairatu.”

Roberto Manriquek, 1987ko ekainaren 19an Bartzelonako Hiperkor merkataritza-gunean harakin gisa ordezkatze bat egiten ari zela kontatu zigun. Egun hartan ETA-k bonba auto bidez burutu zuen atentatuan larriki zauritua gertatu zen. Garai hartan, Espainian, biktimen aitortzarik ez zela existitzen eta horretarako legea 1999an soilik bozkatua izan zela azpimarratu zuen. Euskal gatazkan zehar GAL-en biktimak baztertu eta ETA-ren biktimak

soilik aitortu izanagatik bere harridura agertu zuen. Espainiako gobernuak biktimekiko duen interesa, politikoa eta hauteskondeekin lotua dela zehaztu zuen eta bere iritziz horrek ez du elkarrizketaren bidea ahalbidetzen. Topatu dituen biktima ia guztiek gauza bakarra nahi dutela zioen: sufrimendua buka dadin eta legea denentzako bera izatea. Berak zioenez, biktimen zeregina minarekin bizitzen ikastea eta gertatu zaiena hobe bizitzeko erabiltzea da.



Lekukotasuna

Axun Lasa, GALEk¹⁸ 1983an Baionan bahitu eta hil zuen euskal errefuxiatuaren arreba.

“Guziona da errespetuaren, enpatia-aren eta esperantzaren haziak ereiteko ardura, horretan datza gure lana.”

Axun Lasak, 1983an Joxi Zabalarekin batera Baiona Ttipian bahitu zuten Joxean Lasaren arreba gisa eman zuen bere lekukotasuna. Joxi Zabala eta Joxean Lasa 12 urte beranduago lurpean eta kare biziz estalirik aurkitu zituzten Espainol administrazio peko lurraldean¹⁹. Biak torturak jasan ondoren tiroz hil zituzten. Era berean, bera ere atxilotua izan zela eta Guardia Zibilaren eskutik tortura pairatu zuela kontatu zigun.

Bere anaiaren eta beste militantearen hilkutxak iritsi zirenean hurbilekoei harrera egiten nola galarazi zitzaizen sumindurik gogoratu zuen. Sufrimenduari aurre egin nahian burutu duen ibilbidean, 2008an beste biktima

batzuekin, ETaren biktimak batez ere, topaketak egon zirela oroitarazi zuen. Haiekin, erraza izan ez bazen ere, bere mina partekatu ahal izan zuen eta berak ez du jada errarik sentitzen. Partekatu zituen esperientzia horiek medio, ez duela “aurka borrokatu” nahi konturatu da, aitzina egiteko eta justiziak zentzua izan dezan ekin nahi duela baizik. Biktimek, etorkizuna eraikitze gaur ekiteko ardura dutela deritzo. Biktima guztien aitortza, eta ez soilik ETA-renak, erdietsi dadin nahi du. Mezu hori, biharko belaunaldiek ez dezaten aitzinekoena errepikatzerik eta bizitzerik izan eskoletan zabaltzen du besteak beste.

¹⁷ Ik. Glosarioa, “Euskal erkidegoko gobernuak”, 23 or.

¹⁸ Ik. Glosarioa, “Grupos de Liberacion Antiterroristas (GAL)”, 23 or.

¹⁹ Ik. Glosarioa, “Espainol administrazio peko lurraldea”, 24 or.



Hegoa Afrikako esperientzia, Justizia eta Egia batzordeak



Brandon Hamber, Hego Afrika, nazioarteko gatazken eta trantsizio justiziaren inguruko ikerkuntza Institutuko Zuzendaria (INCORE; International Conflict Research Institute).

“Agintariak, justizia, aitortza eta erreparatzerako baldintzak eta esparru instituzionala plantan ezarri behar dituzte eta (...) gizarte zibilak gizarteko elementu ezberdinak elkartzeko gisan lan egin behar du.”

Brandon Hamberrek, 1990eko Hego Afrikako bere trantsizio justiziaren ²⁰ esperientzia aipatu zuen. Bere ustez, biktimek iraganari aurre egiteko aukera izan behar dute, eta horretarako justizia, aitortza eta erreparazioa ezinbesteko elementuak dira; baina esperientzia hori gauzatu ahal izateko esparrua sortzea politikariei dagokie. Hego Afrikan Egia eta berradiskidetze batzordeen forma hartu bazuen ere, gatazka bakoitzari dagokio hartu behar duen forma atzema-tea eta, zioenez, instituzioek ariketa hori aitortzea garrantzitsua da. Berradiskidetzea, harremanak berriz eraikitzeko prozesu gisa pentsatu behar da, bestela esparru politikoa sortzea biziki zaila izaten da. Berradiskidetzea 5 atalez osatua dago:

- etorkizunaren ikuspegi partekatua izatea
- iragana onartu eta zauriei aurre egitea
- elkarren harremana indartzea
- jarrerak aldatzeko indarra egitea
- berdintasuna erdiesteari lotzea

Biktimei dagokionez, ez direla hauek prozesu batean parte hartzea behartu behar gaineratu zuen. Baina Axun Lasak eta Roberto Manriquek esan bezala, biktimek betebeharra, haien bizipenak partekatuz, gertatutakoa errepika ez dadin ekitea da.

Amaitzeko, prozesu bikoitza une berean plantan ezartzea ezinbestekoa dela adierazi zuen:

- Goitik beherakoa: agintariak, justizia, aitortza eta erreparazioa gauzatu ahal izateko baldintzak eta esparru instituzionalak plantan jarri behar dituzte.
- Behetik gorakoa: jendarte zibila gizarteko elementu ezberdinak elkartzeko eta biltzeko gisan aritu behar da.

²⁰ Ik. Glosarioa, “Trantsizio justizia”, 24 or.



4.

Presoak bake prozesu baten baitan: erronkak eta funtzioa



Raymond Kendallek bere aurkezpen hitzaldian, presoek bake prozesu baten baitan jokatzeko duten rola eta hauek duten betebeharrari dagokion analisia egin zuen, beti ere Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kide gisa. Euskal Herrian bizi dugun testuinguruaren aurrean, Espainiako eta Frantziako estatuek agertzen duten jarrerak harrizten zuela nabarmendu zuen, izan ere hauen parte hartzea ezinbestekoa dela eta koste gutiko urratsak ematea bideragarria dela gaineratu zuen, presoek eskubideei dagozkienak batez ere.

Hitzaldiaren ondoko ariketak, presoek gaiak aitzina egin ahal izateko plantan jar daitezkeen mekanismoen inguruan hausnartzea zuen helburu. Zentzu horretan, IRA-ko ²¹ militante ohi eta Ipar Irlandako Asanbladako diputatua den Gerard Kellyk eta Ipar Irlandan presoek askatzerako batzordean ²² parte hartu zuen Brian Currin abokatu Hego Afrikarrak, haien bizipenaren kontakizuna egiteaz gain ezagutu zituzten aurrerapausoak eta oztupoak azaldu zizkiguten. Era berean, presoak, bake prozesuko eragile aktibo gisa onartuak izatearen garrantzia azpimarratu zuten.

Gabriel Mouesca, euskal preso politikoa ohi eta Presondegien Nazioarteko Ikuskaritzako lehendakari (OIP) ohiak, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko ordezkari konferentzian parte hartzeko baimena ukatu zieten adieraziz abiatu zuen bere mintzaldia. Preso politikoei aplikatzen zaizkien neurri bereziak aipatu bazituen, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa ²³ gatazkaren konponbide demokratikoaren alde adierazten duen engaiamendua ere oitazi zuen.


²¹ Ik. Glosarioa, "Irish Republican Army (IRA)", 24 or.

²² Ik. Glosarioa, "Ipar Irlandan presoek askatzerako batzordea", 21 or.

²³ Ik. Glosarioa, "Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK)", 21 or.



Aitzinsolasa



Raymond Kendall, 1985etik 2000ra INTERPOL-eko Idazkari Nagusia izan zen eta gaur egun INTERPOL-eko Ohorezko Idazkari Nagusi eta Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kidea da.

“Presoen gaiaren inguruan, Frantziako gobernuak urrats sinpleak eman ditzake.”

Raymond Kendallek, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kide gisa, konferentzia horrek esperantza irudikatzen zuela adierazi zuen.

Berak zioenez, gatazka alde humanitariotik hartu izanak arazoari buru egiteko lagundu zezakeen eta Jox-ek zioen bezala, urrats errazak egitera bultzatu, presoen eta iheslarien kasuetan adibidez. Aiete ondorengo 4 urte hauetan Harremanetarako Nazioarteko Taldea, beste eragile batzuekin batera, bakerako baldintzak sortzeko ahalginetan ziharduela baina estatuen aldetik deus

ere ez zela mugitu ohartarazi zuen. Konferentziak bere ustez, atek irekitzeko balio bazuen ere, prozesuan estatuak engaiatu ezean aitzina pausuak ezinezkoak direla zehaztu nahi izan zuen. Raymond Kendallek hala ere, gaur egungo egoera ikusiz, maila politikoan arrisku gutiko urratsak eman zitezkeela baieztatu zuen eta prozesuak bilakaera baikorra izatekotan denek arriskuak hartu beharko lituzketela gehitu.

Amaitzeko, bake prozesuaren bururapenak denen partetik hautsi-mautsiak eskatzen zituela oroitarazi du.

Irlandako bake prozesuan presoek jokatu duten rola eta hauen ekarpenak



Gerard «Gerry» Kelly, Sinn Feinneko Exekutiba Nazionaleko kide eta Ipar Irlandako Asanbladako (STORMONT) diputatua.

“Ipar Irlandan, presoak aldaketarako motor izan ziren (...). Baina gobernu batek ez badu gatazka armatuaren alternatiba gisa aldaketa politikoa ahalbidetzen, ezin dugu bakea, berradiskidetzea eta gatazkaren amaiera gertatzea amesten ahal.”

IRAko militantea izan zela, Irlandako prozesuaren baitako eztabaidetan eta akordioetan parte hartu zuela (1998ko Ostiral Santuko Akordioak) eta gaur egun ere elkarbizitzarako lanean diharduela azaldu zigun. Irlandan 25.000 pertsona inguru kartzelatu zituztela kontatu zuen eta horrek gatazkak zenbat senide eta lagunengan eragina izan zuen irudikatzen laguntzen duela. Bere ustez, presoek jokatu zuten rolari eta egin zuten ekarpenari dagokionez, zailena ez zen parekoarekin negoziatzea bera, ordezkatu behar zituztenekin negoziatzea baizik. Presoek negoziaketetan parte hartu ez bazuten ere, hauen eta iheslarien ekarpena berebizikoa izan zen.

Kohesiorik izan ezean, bakea egitea ezinezkoa da eta Irlandan ez balitz kohesio hori eman, bakea erdiestea ezinezkoa izanen zen. Presoen eta erbesteratuen adostasun eta parte hartzerik gabe ez zen desmilitarizatorik emanen.

Ingalaterran gatibu zeuden presoak haien senideengandik hurbilduz Irlandara eraman zituztenean, Ingalaterrari guti kostatu zitzaion baina prozesuarendako neurri garrantzitsua izan zen. Izan ere neurri horrek prozesuak aitzina egin zezan konfiantza giroa ahalbidetu zuen.

Presoekin eta presoen arteko komunikazioa etengabea izan zen eta Irlandako gizarteak hauen iritzia aintzat hartu zuen.

Gatazka baten alde militarra konpontzeak jarrera aldaketa eskatzen du eta partekatua izanen den prozesua aldaketa horretatik etorriko da. Elkarriketa garaietan konfiantza eraikitzea biziki zaila da baina ekidin ezina.

Konfiantza hori eraikitzeko eta parte hartzea erdiesteko, Estatuak ere konfiantza sortuko duten keinuak egin behar dituztela esanez bukatu zuen bere hitzaldia.

²⁴ Ik. Glosarioa, “Ostiral Santuko Akordioak”, 20 or.



Euskal presoak: egoera, hausnarketak eta ekarpenak



Gabriel Mouesca, euskal preso ohia, Presondegien Nazioarteko Ikuskaritzako lehendakari ohia (OIP), Euskal Herriko Giza Eskubideen aldeko Komiteko lehendakaria (CDDHPB).

“Euskal presoek kolektiboak, ETA-k Aiete-ko konferentziaren ondotik hartu zituen erabaki estrategikoekin osoki bat egiten duela adierazi du behin eta berriz eta, gatazkaren eragile aktibo izanik, honen konponbidean parte hartzeko borondate irmoa erakutsi du.”

Gabriel Mouesca, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren (EPPK) izenean mintzatu zen Pariseko konferentzian.

Bere lehen hitzak, Frantzian diren euskal presoek kolektiboko ordezkariak zegoen autoritate kompetenteari konferentzian zaintzapean egoteko baimen eskaria luzatu ziotela eta baime-na ukatu ziotela adierazteko izan ziren.

Euskal presoek orokorrean salbuespenezko neurriak oraindik aplikatzen zaizkiela orotarazi eta neurri horiek nazioarteko hitzarmenen, Europako direktiben eta Frantziako barne zuzenbidearen aurkakoak direla adierazi zuen.

Gaur egun 94 euskal preso Frantziako 28 kartzelatan daudela eta 356 berriz Espainiako 44etan daudela salatu zuen, horietarik 64 Euskal Herriko 1.000 eta 1.100 kilometro arteko distantziara kokatuak diren presondegietan eta 124 preso 800 eta 900 kilometro artekoak dauden presondegietan daudela zehaztu zuen. Bere ustez, egoera horren helburu bakarra presoak isolatzea

eta prozesuan bete betean engaia daitezkeen ekiditea zela salatu zuen. Hitzaldi horretan, erbesteratuen ²⁵ egoera ere aipatu zuen. Erbesteratu batzuek, frantses gobernuak beste gobernu batekin negoziaturiko erbesteratzea pairatu zuten eta ondorioz egoera horri irtenbidea aurkitzeko ardura Frantziako estatuari dagokiola aldarrikatu nahi izan zuen.

Azkenik, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak²⁶ prozesuaren baitan emaniko urratsak eta hauen askatze prozesua martxan jarri behar dela azpimarratu zuen. Zioenez, kolektiboak azken lau urte horietan abian zen bakearen eraikuntzaren alde osoki eta arduraz engaiatzeko prestutasuna zuela orotarazi zuen. Bukatzeko ardura politikoa dutenei, munduan beste batzuek egin izan duten bezala, sufrimendua arintzen lagunduz eta gorrotoa gainditzeko lana eginez ausardiaz joka dezaten eta bakearen alde engaiatu daitezela eskatu zien, eta hori ondoko belaunaldien onerako.

Irlandako esperientziatik Euskal Herriko errealitatera



Brian Currin, abokatu, giza eskubideetan, gatazken eraldatzean eta bake prozesuetan aditua, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko sustatzaile.

« Interesgarria litzateke, presoek askatzearen iguruko hausnarketa egiten hasiko litzatekeen batzorde bat sortzea pentsatzen hastea ».

Brian Currinek bere aldetik, Irlandako prozesuaren baitan presoek askatzearen ataleko bere esperientzia partekatu zuen. Irlandako kasuan ere presoek gaia ez zela afera erraza izan eta Britainiako gobernuak ez zela berehala engaiatu azaldu zuen. Askatze prozesu horrek, metodologia bat plantan ezartzea eta egoera ezberdinak aztertuko zituen adituz eta psikologoz osaturiko batzordea izendatzea eskatzen zuen. Esparru juridikoa zutik jartzeak, metodologia hori praktikan erabiltzea ahalbidetzen zuela eta, independentea izanik, zilegitasuna ematen ziola gaineratu zuen. Prozesuan engaiatu ziren preso guzientzat zigor apaltzeak izan ziren eta, finean, kalera atera ziren. Baina horretarako dena den, britainiar eta irlandar gobernuen

parte hartzea beharrezkoa izan zen.

Euskal Herriari zegokionez, ez zuen dispertsioa indarrean egotea ulertzen. Bere ustez, preso gaixoen askatzearen kasuan besteak beste, Giza eskubideak errespetatzea da kontua eta Frantziako eta Espainiako estatuak ez lukete eskubide hori errespetatzeko arazorik izan behar. Presoek askatzea aztertuko lukeen komisioa plantan ezartzea oso interesgarria litzatekeela zioen. Horrek esan nahi du justizia egin behar harko litzatekeela, zigorrak betez, baina legeak denei bezala aplikatu ondoren eta Euskal Herriko egoera berrira egokituko litzatekeen koadroan lege berriak eginez.


²⁵ Ik. Glosarioa, “Euskal Herriko Politikoen Kolektiboa (EIPK)”, 21 or.

²⁶ Ik. Glosarioa, “Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK)”, 21 or.



5.

Lanen sintesia



Michel Tubiana, Giza Eskubideen Ligako ohorezko lehendakaria

"Pierre Joxe-k bere hitzaldia Espainiako gerlari buruz mintzatzen abiatu zuen eta orduz geroztik buruan burrunbaka ari zaidan zerbait bada; egun eta etorkizunean ere gure eginen ez dugun zerbait. Hala nahiko nuke behintzat. Gogoan dukezue frankismo garaian "behera adimena eta gora heriotza" zioen eslogan hori. Konferentzia honek, gora adimena eta behera heriotza diola espero dut.

Gerla egitea baino zailagoa da bakea egitea. Bake prozesu batek eskatzen duen borondatea eta hondamendiak eta bortizkeriak gaina hartzeko behar duten erraztasuna ezin daitezke konpara. Euskal Herrian gertatzen denak ongi erakusten du hori.

ETA-k indarkeria erabiltzeari uko egiteko erabakia hartu zuen. Erabaki hori, libre, erbestean edo preso ziren eta beren burua erakunde horretakoa zela/dela aldarrikatzen duten edo zuten gizon eta emazteek onarturiko erabaki politikoa izan zen. Egoera jakin baten onarpen zehatza da, dudarik gabe, baina baita eztabaida demokratikoan sartzea indarkeria erabiltzea baino hobe denaren kontzientzia hartzea ere. Ez da metodo aldaketa soil, eskualde horretako

erronka politikoen mamia bera ukitzen duen izaerazko aldaketa da: demokraziaren arauak gaina hartzen dutela onartzera darama, honek dituen alde on eta txarrekin, baita gutxiengoa izatearen onarpena ere, jakinez demokrazian gutxiengoa izateak ere zilegitasun osoa duela.

Bakoitzak bere hautua egin behar du: egiazko eztabaida politiko bat plantan ezartzearena, honek dituen osagai guztiak integratuz, edo bestearen gaineko garaipenaren perspektiban eta esperantzan soilik jardutearena.

Denen borondatea bortizkeriarekin bukatzeaz gain demokraziari aukera ematea baldin bada, "garaipenak", ez du kasu honetan zentzurik. Boterea dutez, irabazi dutez, aurkaria makurtzea eta bere legearen pisua bere zorrotasunean sentiaraztea oso tentagarria da. Baina historia porrot itsura duten garaipenez betea da eta bakea ez da hola eraikitzen.

Baldintza batzuk betetzen badira soilik bideragarria da eta hemen guztiak aurrekusten dira.



Horietako bat noski, ETA-k bere engaiamendua errespetatzea eta prozesu demokratikoarekiko atxikimendua betikotzea.

Baita alde guzietan iraganaren inguruan egia egiteko moldea aurkitzea ere. Argi dago ez dela deus ere gertatu ez balitz bezala egitea aurreikusten. Norberak, bere egoera edozein dela ere, bere ekintzen ardura du eta egia atera eta esan behar da. Hemen beraz, ezer ere ahanzteko borondaterik ez dago eta ez dut zentzu horretan dioan ezer ere entzun. Izan ere, egia ez balitz aterako, egi bakarra, haien egia, entzun nahi dutenen alde eginen luketen zurrumuruz beteko litzateke kontakizunaren espazioa.

Ez da deus ere ezkutatu behar, hilketatik torturaino, baita neholako ñabardurarik gabe alde edo kontra izatera behartzen duen bortizkeria intelektuala ere. Iragana ezagutu ezean ez da deus ere erakitzen ahal.

Egi hori biktimei ere zor zaie. Biktimaren onarperako lehen baldintza da. Horrek ez du haien samina aldatuko, poetak ongi dio: "ez dugu deus ere ahanzten, denetara ohitzen gara". Baina horrek mina gainditzeko lagunduko ditu agian. Eta utz nazazue mintzaleku honetan hitz egin duten hitzen indarra, horretarako behar den ausardia eta azaleratzen duten gizatasuna azpimarratzen.

Azkenik, Gabik ederki azaldu duen bezala, mendekuaren adierazpen hutsa litzatekeen "garaipe" ideia oro baztertu behar da. Mendekuan oinarrituko den ezer ere ez da eraikitzen ahal, desagerrarazi nahi dugun gorrotoa betikotzea izan ezik.

Hori da, bide luzeko lanaren etapa izanen dela jakinez, konferentzia hau antolatuz zabaldu nahi duguna.

Plazer handia izan da goiz honetan hizlari izan diren eta Serge Portellik ondotik irakurriko duen deiaren izenpetzaile direnen aniztasuna egiaztatzea. Zoriontsu egiten nau bakearen arrangurak, mugaren alde honetan bederen, gaina hartzen duela ikusteak. Izaera guzietako bereizketa gainditzeak, gatazkaren konponbidea burura eramateari eta frantses errepublikaren eta espainiar erresumaren baitan Euskal Herriaren etorkizuna eztabaida politikoan sartzeari bidea irekitzen die.

Ondorioz, azken hitz hauek gobernuei zuzendurikoak dira.

Haiek pisu handiko ardura dute. Haien pribilegioei

uko egitea eskatzen diegu. Ez diegu gertatutakoaren aitzinean begiak hesteko eskatzen. Brian Currirek oroitarazi duen bezala, justizia zor bat da. Gaur luzatzen dugun eta Aieten luzatu zen deia entzun dezaten eskatzen diegu. Gaur arte ETA-ren aldeba-karreko desmartxa eztabaida politikoan bilaka dadin behar diren neurriak hartzeko eskatzen diegu, Frantziako eta Espainiako Euskal Herriko jendarte zibila barne sartuz. Lehenago esan dut, horrek garaipenaren edo amore ematearen ideia baztertzea eskatzen du. Horrek, haien burua ETA-kotzat jo duten edo jotzen duten gizon eta emazteak elkarrizketa kide gisa ikustea eskatzen du eta ez, azken aldirian Pirinioen beste aldean ezartzen diren kartzela zigorrek pent-satzera uzten duten bezala, desagerrarazi behar den etsai gisa.

Elkarrizketa irekitzeko, hauen ahotsa ez da isildua izan behar eta ezinbestekoa da ekintza bortizte-tan parte hartu gabe aldarrikapen horiek eramaten dituztenak, konplizitate intelektualagatik ez auzi-petuak izatea. Hori iritzi delitu soila baita. Egoera berriak, salbuespenezko neurriak desagertzea eta, bereziki Frantziako, kondenaturiko gizon eta emazteei legea aplikatzea beharresten du. Hartara, Frantziari dagokionez, konferentzia hau izendatzeko erabiltzen den humanitario hitza soberan legoke, izan ere legea betetzea presoak haien familiengan-dik hurbiltzea baita. Gizon eta emazte horiek, gure demokrazien printzipioen aurka doazen tratua ez jasatea ezinbestekoa da. Horrek esan nahi du ere, biktima guziaz entzuteko bitartekoak kolektiboki eskuratu behar direla eta sufrimendua erabiltzeko joera baztertu behar dela.

Prozesu honen faseak zein izanen diren esateko goizegi da oraindik baina ez da berantegi abian ezartzeko. Ez dut epe motzeko interesek edo bai ala bai borrokatzeko borondateak ekidinen duenik sinistu nahi. Hala balitz, seguru aski, Ordenak, agin-duko luke baina frantses errepublikako presidente ohi batek zioen bezala, "legearen indar injustuarena" izanen litzateke. Ondorioz, Ordena horren zimenduek ez liokete etorkizunari neholako bermerik emanen. Zabaltzen dugun esperantza bestelakoa da: berres-kuraturiko bake zibilarena eta gorputz eta arimaren berrosatzearena. Baita denen ideiak aurreiritzirik gabe entzunak eta eztabaidatuak izatea ahalbidetuko duen irekitasun eta irudimen askatasunarena ere eta ondotik demokraziaren zigorra jasoko lukeena, denek onartzen dugun arau mota bakarra. Zuei, frantses eta espainiar gobernuei, mezu hau entzun dezazuen es-katzen dizuegu. Ez da amesti batzuen apustu soila eta are gutxiago inozo batzuen. Demokraziaren aldeko apustua da, egin behar duguna, lotzen gaituena, giza legearen izenean egiten duguna.



6.

Amaierako
hitzartzea

Bertie Ahern, Irlandako Lehen Ministro ohia, 2011n Aieteko konferentzia gidatu zuten 6 nazioarteko pertsonalitateetarikoa bat eta Aieteko Adierazpenaren izenpetzaile.

« Milesker. Ohore handia da, hizlari anitz Euskal Herriaren bakearen alde lanean ari den honetan, memento hau zuekin partekatzea. Bakea indartzeko balio duen konferentzia humanitaria da eta horrek pozten nau. Azken egun hauetan, orain dela 4 urte gu seien ²⁷ izenean irakurri nuen adierazpena berrikusi ondoren, zuen aitzinean adierazpen bat egiteko prestatzen egon naiz. Gaur berriz aipatzen ditugun 5 puntuak ²⁷ irakurri aitzineko adierazpenean, esperientziak, zinezko bakerako aukera agertzen delarik hartu behar dela frogatzen zuela adierazi genuen. 2011ko urrian esan genuena da eta gaur berretsi nahi dut.

Prozesu guzietan, eta beste prozesu batzuetan esku hartu dugunok ongi dakigu, (...) beti daude oztupoak, nahi baino polikiago aitzinatzen garen uneak. Beti daude egun txarrak eta lorik gabeko gauak. Beti daude esperantzarik gabeko aldiak, baina ez da sekula amore eman behar eta badakigu amore ematen ez badugu une batean edo bestean korapiloa askatuko dela. (...)

Gerry Kellyk ez ninduke barkatuko ez banu gure negoziaketak talde negoziaketak izan zirela eta 1998an izenpetu genuen Ostiral Santuko Akordioa eraginkorra izan zela esaten. 2007an dena ez zela konpondu egiaztatu behar izan nuen eta, azken egun hauetan, Akordioa bukatzeari buruz ari ginen oraindik. Ondorioz badakigu gauzak ez direla egun batetik bestera erdiesten. Gatazka luze baten ondoko berradiskidetze prozesu orok, bakea urratsez urrats egiten dela oroitarazten digu. Bakea makila magiko batez egiten ez den prozesu progresibo eta geldoa da. Denbora, ausardia eta iraunkortasuna beharrezkoak dira. Demokratikoki hautatua izan den politikari oren betebeharra dela deritzot. Deus ere ez da bakearen, gatazken eta hilketen prebentzioa baino garrantzitsuagoa. 1998ko Ostiral Santuko akordioaz geroztik Ipar Irlandako bake prozesuan parte hartu duten guziek, amore eman gabe lanean jarraitu dutela, komunitateak elkarrengandik hurbildu dituztela eta anitz ikasi dutela uste dut, eta harrezkerostik gure bizia markatu duten beste akordioarik egon da.

²⁷ Ik. Glosarioa, "Aieteko nazioarteko Konferentzia", 22 or.

²⁸ Ik. Emendakinak, 27 or.



Gatazkak, bakoitzak bere ezaugarriak dituelako, ezin dira elkarren artean konparatu eta urteak joan ahala hori zuzenean bizi izan dut. Hala ere, Ipar Irlandako gure gatazkako elementu batzuek gatazkaren konponbideak abian jartzeko lagun dezaketela uste dut.(...) Ipar Irlandako ene kideak oroituko dira; Errepublikako politikari gaztea nintzelarik, Britainiarrek gatazkak ez zuela gurekin zerikusirik esaten ziguten, Erresuma Batuko barne arazoa zela eta hola esaten ziguten: "bakoitza bere arazoez arduratu behar da". Gauzak aldatzen doaz eta ez da amore eman behar.

Gatazkaren alde guziek, statu quo-a jasan ezina dela eta denen intereserako gutxiengo akordioa beharrezkoa dela onartu behar dute. Etengabe blokeo egoeran den desmarxa bat onartezina da eta ez dio konfiantzari bidea egiten uzten. Negoziatek alde guzien artekoak eta inklusiboak izan behar dira. Gobernuentzat ariketa zaila dela ulertzen dut. Baina gauzek aitzina egin dezaten engeiatzen garenean, arazoak konpontzeko baldintzak denentzako sortu behar dira. Eta gaur hori entzun dugula uste dut.

Hartara, berriki Euskal Herriko bake prozesuaren aldeko ahalegin ikaragarriak egin direla ohartzen garela espero dut. Negoziatzen delarik, parekoaren tokian jartzeko gaitasuna ukan behar da. Gaur bi biktimaren hitzak entzun ditugu. Irlandan lan anitz egin genuen gai horren inguruan, milesker Brian Currini konpartitu izanagatik. Alde guziek gai horren inguruan komunikatzeko indarra egin zuten. Baina ez zen erraza izan. Eskua luzatzea eta barkatzea gauza zaila da. Jendea gizatasunez tratatzea berebizikoa da. Behar bada biziki sinplista da baina besteen ikuspuntuak ulertzea ezinbestekoa da.

Diasporaren lana ere aitortu nahiko nuke, munduan zehar bake prozesuaren alde egin baitzuen eta taldeak horretan parte hartzera bultzatu.

Baliatu nahiko nukeen beste irakaspen bat bada. Bakea egin nahi denean, ez da historia ahanzten saiatu behar, ezinezkoa baita, baina negoziaketen esparruan mindura bazter batean uzten saiatu behar da. Irlandan, historia luzea genuenez, hori egitea zaila izan zen. Mitchell Senatari ipar amerikarrak, Irlandan iraganera begiratzeko etengabeko joera genuela behin eta berriz esaten zidan. Baina historia, batzuen arrangurak eta besteen garaipenak dira. Gertakari historikoak etengabe mahai gainean ezartzeak, denek hori egiteko joera badugu ere, energia galtze handia suposatzen du.

Horrela, erabakitasuna, pazientzia, baikortasuna

eta sekula ez amore ematea bake prozesu batera iristeko ezinbesteko elementuak dira. Beste behin ere, bake prozesu honetan parte hartzen duten guziak eskertu eta zoriondu nahi nituzke.

Konferentzia honetarako berebizikoa den beste gauza pare bat aipatu nahi nuke: Presoen gaia.

Gogoan dut, sei hilabeteko negoziaketen ondoren lehen aldiz, Tony Blairrek, Gerry Adamsek, Martin Mc Guinnesssek eta nik neuk goizeko 5etan, azkenean, presoen askatzeari buruz hitz egin genuelarik. Brian Currinek prozesu baten bilakaerari buruz esan duenarekin bat nator, ororen buru erabaki politiko bat behar dela. Borondate politikoa behar da eta erabakia lider politikoek hartu behar dute.

Lau urteko bake eta egonkortasunaren ondoren, gai hori tratatzeko unea hona ere iritsi da. Argi baitago gatazkaren parte izan direnek ez dituztela haien presoak abandonatuko. Gai horrek aitzina egin dezan beharrezkoa den norabide politiko bat izanen dela espero dut.

Aipatu nahiko nukeen azken gai bat bada, armen itzultzea eta armagabetzea.


Gogoan dut 1995-1996an boterean egon zen politikari kontserbadore batek molde diplomatikoan esan zidala, 1996a aitzin ez bagenituen gai horiek aipatu gobernuan aldaketarik egon ez zelako zela. Politikari kontserbadore horrek esan zidan, garaiaren oposizioko burua nintzen, "hauteskundeak irabazteko bala bakar bat nahikoa dugu, ez ditugu arma guziak nahi, badakigu ez ditugula denak eskuratuko. Bala bat behar dugu." Eta nik erantzun nion: "badakit zergatik nahi duzuen bala bakar bat, zuentzako bala bat errendizioa delako. Uste duzu Gerry Kellyrengandik eta bere kideengandik bala bat eman diezadaten eta errendi daitezen lortuko dudala? Ez da sekula holakorik gertatuko". Haatik gertatu zena, arazoa konpontzeko betebeharra zuen batzorde bat, nazioarteko egitura bat, plantan ezarri zela. Jaun, Andereak, horretan datza aterabidea, ez dago beste biderik. Beraz berebiziko gai horiek direla eta, espero dut ez direla beste lau urte itxoin beharko berriz elkartu eta lortu dugula egiaztatzeko. Espero dezagun boterea dutenek behar dena eginen dutela. Ostiral Santuko akordioaren izenpetzea lortzeko Tony Blairrek behar zena egiteko indarra eta boterea izan zuen eta akordioa gauzatu zen.

Ohorea izan da zuekin denbora partekatu ahal izana eta zorte handia opa dizuet.»



7.

«Euskal Herriko bakearen aldeko adierazpenaren» irakurketa



Serge Portelli, (epailea eta Versailles-eko dei gorteko lehendakaria)-ren eskutik





PARIS EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDE

50 urteko indarkeria eta sufrikarioen ondotik, Europa mendebaldeko azken gatazka armatua konponbiderako fasean sartua da.

Donostian, 2001ko urriaren 17an buruturiko Aieteko Nazioarteko Konferentziaren ondorioz ETAK bere jarduera armatua bukatutzat jotzea erabaki zuenetik, sekula ezagutu ez dugun testuingurua bizi dugu Euskal Herrian.

Hiru urte baino gehiago dira konferentzia horren ekimenei erantzunez nazioarteko sei liderrek, Kofi Annan Nazio Batuen Idazkari nagusia ohiak, Pierre Joxe Frantziako Barne eta Defentsa Ministro ohiak, Gerry Adams Sinn Fein-eko liderrak, Gro Harlem Brundtland Norbegiako Lehen Ministro ohiak, Bertie Ahern Irlandako Lehen Ministro ohiak eta Jonathan Powell, Tony Blair Britainiar Lehen Ministro ohiaren bulegoko kontseilari ohiak gatazka konpondu eta gainditzeko asmoa duen bost puntuko "bide orria" aurkeztu zutela.

Euskal gizarteak bere aniztasunean, bakea erdiesteko ahaleginari usu eta masiboki babesa adierazi dio. Gizarte zibilak, ordezkaritza politiko osoaren eskutik – tendentzia guziak barne –, gatazka behin betiko konpontzeko baldintzak sortzeko eskatu die bakegileei eta hori Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa taldearen bidez egin du.

Bake prozesuak bere onera iristeko aukera haundiak ditu eta horren bermea, Gatazkaren konponbidea bultzatzeko eta errazteko, eta alderdien arteko elkarrizketa sustatzeko betebeharra duen Harremanetarako Nazioarteko Taldea eta su etenaren Nazioarteko Egiatzatze Batzordea – ETAK bere armategia baliogabetzen eta zigilupean ezartzen jarraitzen zuela adierazi duena – dira.

Bakearen aldeko baldintzak sortzeko ahaleginek euskal gizartearen sektore zabal baten nahia eta nazioartearen babes geroz eta haundiagoa agertzen badute ere, ezin direla aldebakarrekoak izan ohartarazi behar da. Bakea, nahi ala ez, frantziar eta espainiar gobernuak gatazkaren konponbidean engeiatzarekin soilik helduko da.

Guk, dei honen izenpetzaileok, Parisen bihotzean, printzipio unibertsal gisa zilegitasun demokratikoa eta Giza Eskubideen eta bakearen sustatzea irudikatzen dituen Asanblada Nazionalean, ondoko aldarrikapenak hedatzen ditugu:

- ETA erakundeari, bere desarmatze prozesua burura eraman dezan eskatzen diegu. Nazioarteko komunitateak espainiar eta frantziar gobernuari prozesuan inplikatzeko luzatu dien eskariarekin bat egiten dugu eta desarmatzea molde adostu eta kontrolatua burutuko dela bermatuko duen espazio egokia plantan dezaten eskatzen diegu.
- Zentzuzko epeak errespetatuz sortuko litzatekeen askatze prozesu batean, familien onurarako izanen den urbiltze eta elkartze prozesu baten bidez euskal presoan dispersioarekin amaitzeko eskatzen dugu. Halaber oinarritzko eskubideen errespetuz, presoari legearen baitako zigorren malgutzera aplikatzea eta erri direnen askatzea ere aldarrikatzen dugu.
- Sufrikariorik sortu ez duen gatazkarik ez baitago, berradiskidetzea sustatzeko eta biktima guzien aitortza, kalte-ordaina eta asistentzia eskuratzeko pisuzko neurriak hartuak izan daitezten eskatzen dugu.
- Ukituak diren nazio ezberdinen interesen izenean eta Bakea sustatzeko behar haundia dagoenez, espainiar eta frantziar estatuak Euskal Herriko gatazkaren konponbidean zinez inplikatzeko eskatzen diegu.

Euskal Herriko gatazkaren konponbidea laguntzeko borondateak bultzaturik eta Aieteko Nazioarteko Konferentziako izpiritu konstruktiboak animaturik, Euskal Herrian eta hortik kanpo Bakearen alde dihardutenentzako, Paris Esperantzaren hiriburu izendatzen dugu gaur.

Paris 2015/06/11



Glosarioa

Aieteko nazioarteko konferentzia

2011ko urriaren 17an Donostiako Bakearen Etxean (Aiete jauregia) iragan zen konferentzia. Besteak beste Lokarrik (ik. Glosarioa) eta Harremanetarako Nazioarteko Taldeak (HNT) antolatutik, Euskal Herriko gatazkaren konponbidea sustatzea zuen helburu. Nazioarteko aditu anitz eta Euskal Herriko Hegoaldeko (ik. Glosarioa) eta Iparraldeko (ik. Glosarioa) alderdi politiko zein sindikatu gehienak elkartzeko aukera izan zen.

Honako liderrek gidatu zuten: **Kofi Annan**, Nazio Batuen Idazkari Nagusi ohia; **Gro Harlem Brundtland**, Norvegiako Lehen Ministro ohia eta "The Elders" (Nelson Mandelak sortu zuen bakea sustengatzeko nazioarteko pertsonalitatez osaturiko taldea); **Bertie Ahern**, Irlandako Lehen Ministro ohia, 1998-ko Ostiral Santuko Akordioaren izenpetzearen bultzatzailetariko bat; **Gerry Adams**, Sinn Fein-eko burua; **Jonathan Powell**, Tony Blair Britainiar lehen ministroaren Kabineteko Buru ohia, azken hau ordu hartan ekialde ertainean zenez Aieten ordezkatu zuena; **Pierre Joxe**, Frantziako Barne eta Defentsa ministro ohia.

Hauek, konferentzia bururatzean, Euskal Herrian bake prozesu bat abiarazteko xedea zuen bost puntuko bide orria zeraman adierazpena plazaratu zuten (ik. emendakina)

Babesle Taldea

Euskal Herriko bakearen aldeko Konferentzia humanitarioan osaturiko taldea (Paris 2015/06/11). Funtziotzat konferentzia babestea zuen tendentzia ezberdinetako parlamentariz osaturik dago.

Talde horretako kideak dira: **Sylviane Alaux, Jean-Luc Bleunven, Colette Capdevielle, François de Rugy, Cécile Dufлот, Frédérique Espagnac, Paul Jacobbi, Jean-Christophe Lagarde, Jean Lassalle, Jean Jacques Lasserre, Noël Mamère eta Paul Molac**.

Conciliation Resources

Gatazkek hunkituriko eskualdeetan jende, erakunde eta gobernuekin mundu mailan lan egiten duen erakunde ingelesa. Bere xedea gatazkak konpontzeko, aurrez aurre diren komunitateen artean elkarrizketa sortzeko,

bakearen egonkortzeko politikak eta praktikak indartzeko eta bakearen egonkortzean biztanleria laguntzeko medio baketsuen ulermena sustatzea da.

Egia eta Berradiskidetze batzordea (Hego Afrika)

Hego Afrikan, Apartheidaren erregimena ordezkatzeko zuen trantsizio demokratikoaren esparruan sorturiko trantsizio justiziarako mekanikeria (ik. Glosarioa).

Tresna horren helburua, nazio batasunaren eraikuntzan parte hartzea zen. Alde batetik, biktimei jasan zuten sufrimendua jakitera emateko ahala eman zitzaizen eta horrek egia ezagutzea ahalbidetu zuen; eta bestetik, gizarteak bere historiari aurre egiten ahalko zion eta memoria bete-beharra burutu. Helburu horien arrakasta ahalbidetzeko asmoz, Egia eta Berradiskidetze Batzordea ez da jurisdikzioa bere zentzu zorrotzengatik. Bere eginkizuna, aitortza zintzo, oso eta publikoa egin ostean, diktadura zein gatazka garaietan gehiegikeria politikoak burutu zituztenei baldintzapeko amnistia eskaintzean datza. Ondorioz, Egia eta Berradiskidetze Batzordea amnesiarik gabeko amnistiaren printzipioan oinarritzen da. Herri anitzek instituzio hori bere egin badu ere, trantsizio justizian ikerle eta aditu direnek zein tokiko biztanleriaren zati batek mugak dituela azpimarratzen dute.

Euskadi Ta Askatasuna (ETA)

1959an, diktadura frankistaren garaian sortu zen nazio askapenerako euskal erakundea; euskal estatu independentea eta sozialista sortzea du helburu. Erakundeak emeki emeki borroka armatuaren hautua egin zuen, 1968ko martxoaren 1etik aitzinako jardura armatuak 829 pertsonen heriotza eraginen zuen 2011ko urtarrilaren su eten "iraunkor", "orokor" eta "nazioarteko komunitateak egiaztagarria aldarrikatzea" erabaki zuen arte. Erabaki hori Nazioarteko Egiaztatze Batzorde batek kontrolatzen zuen (ik. Glosarioa).

2011ko urriaren 20an, Aieteko nazioarteko Konferentziaren ondoko egunetan, erakundeak bere jardura armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuen eta Frantziako eta Espainiako gobernuekin gatazkaren ondorioez elkarriketzeko borondatea agertu zuen. Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak bere egiaztatze lana egiten segitzen du. Espainol administrazio peko lurraldeak



Bi autonomia erkidegok osatzen duten lurraldea; Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafar Foru Erkidegoa.

1979ko abenduaren 22an sortua, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko probintziak osatzen dute.

1982ko agorrilaren 16an sortua, Nafarroako foru Autonomia probintzia bakarrak osatzen du: hiriburutzat Iruñea duen Nafarroako probintziak.

Euskal erkidegoko gobernua (Eusko Jaurlaritza)

1980an sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) instantzia betearazlea (ik. Hegoaldea). Honen egoitza Gasteizeko Ajouria Enea jauregian kokatua dago, Lakua auzoan. Euskal parlamentuak lau urtero hautatzen du lehendakaria eta glosario honen idazketan gabiltzan honetan. Lehendakaria Iñigo Urkullu da, 2012ko urriaren 21az geroztik.

Euskal Herriko hautetsien kontseilua

Iparraldean 1995eko otsailean sortu zen kontseilua. Herriarteko Elkarlanerako Erakunde Publikoetako 41 ordezkari, Iparraldeko eskualde kontseilariz, Frantzia eta Europa mailako parlamentariz eta karguan diren gobernuako kideez osatua da. Eskualdearen proiektua eramaten du eta Pirinio Atlantikoetako kontseilu orokorra, Eskualdeko Kontseilua eta Europar Batasuna bezalako erakunde partaideen aitzinean proposamenak egiteko gaitasuna du.

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboa (EIPK)

Tortura, adierazpen askatasunaren aurkako erasoak edo alderdi politikoen eta erakunde ezberdinen legez kanporatzearen ondorioz kartzelatutako izateko arriskua ekiditeko Euskal Herritik ihes joan behar izan duten militanteek osaturiko kolektiboa.

Ikuspegi administratibo, juridiko zein humanoari dagokionez, iheslari bakoitzak egoera berezia bizi du. Ihesean joan direnez gain, azken hogeita hamar urte hauetan 18 lagun atzerrian dira inolako estatus juridikorik edo administratiborik gabe. Frantziako edota Espainiako gobernuek beste batekin negoziatu ondoren bertara deportatzeko erabakia hartu zuten.

Biziki zaila da erbestean den jende kopurua zehaztea. Kolektibo hori halere zenbaketa egiten ahalegindu da eta kontinente guzietan eta herri anitzetan sakabanaturik 300 lagun baino gehiago kontatu ditu. Kolektiboak, denak ezin izan dituzten zenbatu, kopurua handiago dela uste du.

Aipatu kolektiboak, Aieteko nazioarteko Konferentziatik atera zen bide orria ontzat jo zuen, baita ETA-ren alde-bakarreko su etena eta jarduera armatuaren amaiera ere. 2013ko ekainaren 12an, Kolektiboak bere bozeramaleak jendaurrean aurkeztu zituen eta Euskal Herriko gatazkaren konponbiderako eragileetako bat izateko gogoia aldarrikatu. Biarritzen 2013ko ekainaren 15ean, EIPK-k bake prozesuari egiten zion ekarpen gisa, bere kideen egoerarentzako aterabidea atzemateko bide orria proposatu zuen 3000 lagunengana aitzinean.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK)

Frantziako eta Espainiako kartzeletan preso diren (2015eko irailean Alemanian, Mexikon eta Portugalen ere aurki zitezkeen euskal presoak) Euskal Herriaren nazio eta jendarte askapenaren aldeko borrokan haien militantzia politikoa zein politikoa-militarraren ondorioz kondenatuak edo auzipetuak diren euskal preso osaturiko kolektiboa. 2015ko ekainean 435 euskal preso politikoa zeuden: 94 preso Frantziako 28 presondegitan eta 356 preso Espainiako 44 kartzeletan daude sakabanaturik. Horietatik 64 haien etxetik 1000/1100 kilometrora dira eta 124 880/990 kilometrora.

Kasu gehienetan, terrorismo kalifikazioa duen edo horrekin lotua den lege haustea leporatzen zaie, bereziki ETA-rekin zerikusia dutelarik, molde zuzenean edo zeharka ²⁹.

Arazoi horietan oinarriturik, batzuetan terrorismo kalifikazioa duen lege hausteen araubide pean eta besteetan lege hauste larrienen araubide pean salbuespenezko zigorrak betearaztea aplikatzen diete usu:

- Presoen urruntzea; familia bizitza edo bizitza pribatu normala izateko eskubidearekin (Europako Giza eskubideen Hitzarmeneko 8. artikulua) ez da bateragarria.
- Larriki erri diren presoengatik zigorrak malgutzeko zailtasuna; kasu honetan gizalagezkoak ez diren eta apalgarriak diren zigorrak debekuekin (Europako Giza eskubideen Hitzarmeneko 3. artikulua) ez da bateragarria.
- Baldintzapeko askatasunerako irizpide guztiak betetzen dituzten euskal presoek dituzten benetan eskuratzeko zailtasunak.

Haatik, 2011n, Kolektiboak Aieteko bide orria ontzat jo zuen eta 2013ko abenduan 28an, prozesuan eragile aktibo izateko prestutasuna zuela publikoki adierazi zuen.

Frantses administrazio peko lurraldea

Lurralde hau, Lapurdik, Baxe Nafarroak eta Xiberoak osatzen dute.

²⁹ Espainian, 18/98 deritzon dosierra « dena ETA da » tesiaren inguruan oinarritzen da; ETArekin jarduerak sustengatzen dutelakoan, erakunde ekonomiko zein sozialak erakunde armatuarekin asimilatzen datza hori. Prozedura horrek bereziki enpresen zuzendari eta kideak, Egin eta Egunkaria bezalako hedabideak edo Segi (gazteak), Askatasuna (presoen elkartasunerako elkarte) elkarteak auziperatzen ditu. Alderdi politikoen legez kanporatzea ere antzeko perspektiban kokatu behar da



2013an Iparraldean estatus bereziko lurralde kolektibitatearen aldeko mobilizazio handiaren ondoren, Frantziako gobernuak ezetzarekin erantzun zion aldarrikapen horri. Urte berean, prefetak Euskal Herriko hautetsien Kontseiluari zuzenbide arruntak onartzen zituen aukera ezberdinak aztertzeko proposamena luzatu zion, horien artean herriartekotasun bakarra (Herriarteko lankidetzako erakunde publikoa – HELEP).

HELEP bakar horrek Iparraldeko 158 herri kontuan hartuko ditu eta 2016 ekainean prefetak aldeko edo aurkako bozka emateko eskatuko dio bakoitzari.

Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa Taldea

Aieteko nazioarteko Konferentzian parte hartu zuten Iparraldeko ordezkari politiko eta sozialez osaturiko taldea. Konferentzia horren ondotik, konponbiderako prozesuaren inguruan hausnartzeko eta honi ekarpenak egiteko asmoz, biltzea erabaki zuten. Gatazka osoki konpondu ahal izateko, gatazkaren alde guziak kontuan hartuko zituen protokolo zorrotz bat jarraitzearen beharra aldarrikatu ondoren, zentzu horretan lan egiteko biltzen jarraitu zuten eta gaur egun ere jarraitzen dute.

2014ko urriaren 24an, Frantziako gobernuari zuzenduriko adierazpena (ik. emendakina) aurkeztu zuten "Frantziako Euskal Herriko Elkarrizketa Taldeak" izenarekin sinatuz.

Grupos Antiterroristas de Liberacion (GAL) / Askapenerako Terrorismoaren aurkako Taldeak

1983 eta 1987 urte artean, Iparraldean batez ere aktibo izan ziren komando parapolizialak, nahiz eta Hegoaldean ere ekintzak burutu zituzten. Helburu nagusizat ETAren aurka ekitea zuten.

1983tik 1987ra, GALEk berrogei bat atentatu eta bahiketara burutu zituen, 27 lagun hilez eta beste anitz zaurituz. Hunkituak izan ziren pertsonak euskal errefuxiatu politikoak, euskal militante independentistak eta frantses herritarrak izan ziren.

Harremanetarako Nazioarteko Taldea (HNT)

2010eko azaroaren 20an sortua, NHT-aren zeregina, "Mitchell printzipioetan" oinarriturik, konfiantza giroa sustatzea, alde guziak "nahi duten heinean" laguntzea eta elkarrizketa politikorako eta negoziaketarako agenda osatzea datza.

Taldearen kideak : **Brian Currin**, abokata, giza esku-

bideetan, gatazken konponketan eta bake prozesuetan aditua eta Euskal Herriarentzako Harremanetarako Nazioarteko Taldeko arduraduna; **Silvia Casale**, kriminologoa, Ipar Irlandarako zigorren berrikusketaz arduratzen den komisioko kidea eta 2000-tik 2007-rat Europako Torturaren prebentziorako komiteko lehendakaria; **Alberti Spektorowski**, Tel-Aviv-eko (Israël) unibertsitateko politika zientzietan irakasle, 2000 urteko uztailan iragan zen "David Kanpoa" gailurrean israeldar ordezkarietako kidea; **Nuala O'Loan**, 1999-tik 2007-rat Ipar Irlandarako polizia gaietarako bitartekaria (ombudsman); **Pierre Hazan**, Nazio Batuetako Giza Eskubideen aldeko goi-mandataria- ren kontseilari ohia; **Raymond Kendall**, britainiar polizia agente ohia, 15 urtez Interpol-eko Idazkari Nagusi izana eta Europako Iruzurraren Kontrako Komite Behatzaileko lehendakari ohia (OLAF).

Ipar Irlandako zigorren berrikusketarako Batzordea

Ipar Irlandako zigorren berrikusketarako Batzordea, Ipar Irlandan 1998ko apirilaren 10ean izenpetu zen Ostiral Santuko akordioaren ondorioz sortu zen. Presoei zegoen arloan, Irlandako eta Britainiako gobernuak, hunkituak ziren presoak askatu ahal izateko prozedura bizkortu baten baitako mekanikeria plantan jartzera engaiatu ziren. Presoak, su eten osoa eta argia iragarri zuten erakundeetako kide izan behar ziren.

Batzordea, zigorren berrikuste eskaeren auzigaiak aztertzen 1998ko uztailan hasi zen.

Irish Republican Army (IRA) (Irlandako Armada Errepublikanoa)

Irlandako independentzia lortzeko eta Ipar Irlandak Hego Irlandarekin bat egiteko borroka armatua erabili duen Ipar Irlandako erakunde armatua. Izen hori 1916ko "Pazko matxinadaren" ondoren hartuko zuen, matxinada hartan parte hartu zuten Ipar Irlandako 3 fakzio armatuek bat egin zutenean.

1998an, Tony Blair Britainiako Lehen Ministroak, Bertie Ahern Irlandako Errepublikako Lehen ministroak, Gerry Adams Sinn Feineko liderrak, John Hume SDLP-ko liderrak, David Trimble UUP-ko liderrak eta Ian Paisley DUP-ko liderrak, Irlandako gatazkari konponbidea emateko asmoz, Ostiral Santuko akordioa izenpetu bazuten ere, akordioak Ipar Irlandan zeuden indar armatu britainiarren desmilitarizazioa erabat baztertzen zuen. Horren aitzinean, IRAk, berak armak uztea pentsaezina zela kontsideratu zuen.

Haatik, 1998 eta 2005 urteen artean burutu ziren negoziaketek egoera lasaitzea lortzen zuten eta, horren ondorioz, 2005eko uztailaren 28an IRAk bere jardura armatua amai-



tutzat ematen zuela eta bide "demokratiko eta baketsuetatik" aitzina egiteko xedea zuela ofizialki adierazi zuen.

Lokarri

2006an Hegoaldean sortu zen erakunde burujabe, anitz eta irabazteko xederik gabekoa. Bakearen, elkarrizketaren eta berradiskidetzearen alde jarduten zen hiritar sarea zen. Lokarrik, 2015eko martxoaren 7an bere ekintza bukatutzat eman zuen, bere helburuak – borroka armatuaren amaiera eta Ezker Abertzalearen legeztatzea – erdietsi zituela zeritzolako.

Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB)

Lehen betebeharrak gisa ETA-k (ik. Glosarioa: Euskadi Ta Askatasuna) iragarri zuen su etena aztertu eta egiaztatzea zuen antolakunde burujabea, 2011ko urtarrilaren 10ean sortua.

Urriaren 20an, Aieteko Konferentziaren (ik. Glosarioa) biharamunean, ETA erakundeak bere jardueraren armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuen eta batzordeak bere egiaztatzeekin jarraitu zuen. 2013ko apirilean, ETA talde armatuak bere arma, munizio eta lehergailuen gordailua zigilupean ezartzea eta erabilezin bihurtzea bere eginkizunetan sartzeko eskatu zion Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari. 2014ko otsailaren 21ean NEB-ak, ETA-k bere armategia zigilupean jarri eta erabilezin bihurtu zuela prentsa aurrean adierazi zuen (erakunde armatuak eta NEB-ak aurkezturiko bere arma gordailuaren parte baten aurkezpen bideoa BBC-k hedatu zuen), "sinesgarri eta esanguratsutzat" joz.

Batzorde hori, nazioartean neutraltasuna aitortua duten bitartekaritzan eta armagabetzean adituak direnek osatua da:

Ronnie Kasrils, Hego Afrikako politikaria, Afrikako Kongresu Nazionalako kidea izan zen 1987tik 2007ra; **Christopher George Maccabe**, Erresuma Batuko Ipar Irlandako bulegoko zuzendari ohia; **Ram Manikkalingam**, "Dialogue Advisory Group"-eko zuzendari eta Amsterdamgo Unibertsitateko irakaslea da, Irakeko zein Ipar Irlandako gatazken konponbide proiektuetan lan egin zuen; **Satish Nambhia**, Indiako indar armatuko Aitzindaritzaren Goreneko buru ohia; **Fleur Ravensbergen**, NEB-aren koordinatzailea, "Dialogue Advisory Group"-eko kidea eta **Arcelly Santana**, NEB-ko Idazkari Orokorraren Alboko Ordezkarria eta Misio Alboko Burua Nepalen.

Ostiral Santuko Hitzarmena

Ipar Irlandako gatazka armatuarekin bukatzeko 1998ko apirilaren 10ean Ipar Irlandan izenpeturiko bakerako

akordioa. Izenpetzaileak, **Tony Blair** Britainiako lehen ministroa, **Bertie Ahern** Irlandako Errepublikako Lehen Ministroa, **Gerry Adams** Sin Feinneko liderra, **John Hume** SLD-ko liderra, **David Trimble** eta **Ian Paisley** DUP-eko liderrak dira.

Hitzarmen hori « Mitchell printzipioetan » (Irlandako gatazken konponbidean biziki inplikatu zen Ipar Amerikar senatariaren izena) oinarritua da eta bere sei arauak honako hauek dira:

- Gatazka politikoa konpontzeko bide baketsu eta demokratikoak soilik erabiltzea.
- Talde armatu guzien armagabetzea.
- Armagabetze hori Ikuskatzaile Batzordeak nahi duenean egiaztatzen ahalko duela onartzea.
- Euren kabuz indarra erabiltzeari uko egitea eta besteek erabiltzen badute, indar politikoen mobilizazioa bultzatuz, aurka egotea.
- Alderdi guzien arteko negoziaketa bultzatzea, prozesu demokratiko eta ez bortitzaren zentzuan ez doazen jarrera guziaz aldatzeko.
- Errepresioarekin bukatu eta bortizkeria buka dadin bestelako bideak aurkitzea.

Ipar Irlandako funtzionamendu administratibo eta sozialerako printzipioen inguruan hobe elkar aditzeko balio izan dute. Ipar Irlandari, Londresetik iragan gabe bere burua kudeatzeko gaitasuna ematen dio. Negoziatuako puntu nagusietan daude:

- Ipar Irlandako asanbladaren sortzea
- Ipar Irlandako lehen ministroa buru izan den ministroen kontseilua sortzea
- Talde paramilitarren armagabetzea (IRA, UVF, UDA, eta abar)
- Ipar et Hego Irlandaren arteko elkarlanerako erakundeak sortzea

Trantsizio justizia

Gatazka egoeren eta giza eskubideen urraketa masiboak gertatu ondoren agertzen diren justizia eskaerei erantzuten saiatzen diren neurri multzoa. Gatazken berragertzea eta zigorgabetasuna ekiditeko, gehiegikeria larriari aurre egitea eta zuzenbide Estatua eta nazio berradiskidetzea bultzatzea du xede.

Ekintza judizial eta estrajudizialen arteko elkartzeko puntua da eta ondoko lau eskakizunei erantzuten die: egia jakiteko, justizia egiteko, kalte-ordainak eskuratzeko eskubideei eta ez errepikatzearen bermeari. Praktikan, trantsizio justizia honako lau tresna legalek osatzen dute: auzia, ikerketa ("Egiaren batzordeak" bereziki), erreparazioa eta instituzioen erreforma. Trantsizio justizia ondorioz, iraganari konfrontatuz demokraziarantz doan bidearen laguntzeko tresna sorta da.



Gehigarriak

Gehigarriak



Euskal Herriaren bakearen aldeko konferentzia humanitariotik ateratako manifestuaren izenpetzaileak. 2015ko ekainaren 11

- 1. Sylvianne Allaux**, Pirinio-Atlantikoetako diputatu (Alderdi Sozialista)
- 2. Christophe Alévègue**, umorista
- 3. François Alfonsi**, Europako Aliantza Askea –EAA (European Free Alliance –EFA)-ko Lehendakaria
- 4. Gustave Alirol**, Régions et Peuples solidaires-ko (R&PS) Lehendakaria
- 5. Eric Andrieu**, Europar diputatu, Parlamentu Europarreko Sozialisten eta Demokraten Aliantza Progresista taldekoa
- 6. Jean Arnault**, Nazio Batuetako Goi Ordezkarri ohia Georgian, Afganistanen, Burundin et Guatemalan eta Center on International Cooperation de New York University-n Senior Fellow-a
- 7. François Asensi**, diputatua, Gauche démocrate et républicaine taldekoa,
- 8. Jean-Baptiste Ayraud**, Etxebizitza eskubideen aldeko militantea
- 9. Roberto Battistini**, argazkilaria - filma egilea
- 10. Patrick Baudoin**, abokatua, Nazioarteko giza eskubideen federakuntzako (FIDH) ohorezko Lehendakaria
- 11. Jean-Luc Bleunven**, Finisterreko diputatua (sozialista, errepublikano eta herritar Taldeari lotua)
- 12. Florian Borg**, Lille-ko Abokatutzako abokatua, Frantziako Abokatuen Sindikatuko Lehendakaria
- 13. José Bové**, diputatu europarra, Berdeen Taldea, Europako Aliantza Askea
- 14. Max Brisson**, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluko lehendakariorde goren. Pirinio Atlantikoetako Les Républicains alderdiko departamendu idazkaria.
- 15. Colette Capdevielle**, Pirinio-Atlantikoetako diputatua (Alderdi Sozialista)
- 16. Mixel Cartatéguy Artzapezpikua**, Niamey-ko (Nigeria) Artzapezpiku Emeritua, Niamey-ko administratzaile apostolikoa.
- 17. Silvia Casale**, kriminologoa, Ipar Irlandarako zigorren berrikusketaz arduratzen den komisioko kidea eta 2000-tik 2007-ra Europako Torturaren prebentziorako komiteko lehendakaria
- 18. André Chassaigne**, diputatua, Gauche démocrate et républicain taldeko Lehendakaria
- 19. Hélène Cixous**, idazlea
- 20. Emmanuelle Cosse**, EELV-ko Idazkari Nazionala
- 21. Jonathan Cohen**, Conciliation Resources-ko zuzendaria
- 22. Jean Louis Comolli**, filma egilea eta kritikaria
- 23. Brian Currin**, abokatua, giza eskubideetan, gatazken konponketan eta bake prozesuetan aditua eta Euskal Herriarentzako Harremanetarako Nazioarteko Taldeko arduraduna
- 24. Roman Dantec**, Loire-Atlantique-ko senataria (EELV)
- 25. Marie Darrieussecq**, idazlea
- 26. Olivier De Frouville**, Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea
- 27. François De Rugy**, Pariseko diputatua, EELV taldeko Lehendakari ordea
- 28. Jean Pierre Dubois**, Giza Eskubideen Ligako Oho-rezko Lehendakaria
- 29. Cécile Duflot**, Ministro ohia eta Pariseko diputatua (ELLV)
- 30. Kotte Ecenarro**, Hendaia-ko auzapeza eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluko kontseilaria (Alderdi Sozialista)
- 31. Pierre, Encreve**, Hizkuntzalaria
- 32. Stéphane Enjalran**, Solidaires sindikatu batasunaren idazkari nazionala
- 33. Frédérique Espagnac**, Pirinio Atlantikoetako senataria (Alderdi Sozialista)
- 34. Jean-René Etchegaray**, Baionako auzapeza eta ACBA-ko Lehendakaria (UDI)
- 35. Thierry Fagart**, abokatua
- 36. Simon Foreman**, abokatua
- 37. Michel Forst**, Giza eskubideen defendatzaileei buruz NBE-ko Txostengile Berezia
- 38. Dan Franck**, idazlea
- 39. Jacqueline Fraysse**, Gauche démocrate et républicaine taldeko diputatua
- 40. Anaiz Funosas**, Bake Bidea mugimendu zibileko Lehendakaria
- 41. Mgr Jacques Gaillot**, Apezpikua
- 42. Anne GARNIER Urtubia**, Munduko Medikuek-en ordezkarria Giza Eskubideen Aholkularitzarako Batzorde Nazionalean (CNCDH)
- 43. Marc Gentilini**, medikuntza Akademiako eta frantses



Gurutze Gorriko ohorezko lehendakari

44. Paul Giacobbi, Goi Korsikako diputatua (Erradikala, Errepublikanoa, demokrata eta progresista).

45. Etienne Godinot, Gatazken Bortizkeriarik Gabeko Konponbideen ikerketa Institutuko (IRNC) Lehendakaria

46. Cécile Gondard-Lalane, Solidaires sindikatu batasunaren delegatu nagusia

47. Olivier Guerin, magistratua, Kasazio gorteko abokatu Nagusia

48. Pierre Hazan, Nazio Batuetako kontseilari politiko ohia, Neuchâteleko Unibertsitateko irakasle asoziatua, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kide.

49. Serge Hefez, psikiatra eta psikoanalista

50. Christiane Hessel

51. Mgr Bernard Housset, La Rochelle-ko Apezpikua

52. Louis Joinet, NBE-ko Giza eskubideen komiterako aditu independente ohia

53. Pierre Joxe, abokatu, Ministro ohia, Kontuen Auzitegiko Lehendakari Goren ohia, Kontseilu Konstituzionaleko kide ohia.

54. Mathieu Kassovitz, filma egilea

55. Raymond Kendall, INTERPOL-eko Idazkari Nagusia 15 urtez, gaur egun INTERPOL-eko Ohorezko Idazkari Nagusi eta Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kidea

56. Georges Kiejman, abokatu, Ministro ohia

57. Bernard Kouchner, medikua, Ministro ohia, Munduko Medikua-en sortzailea

58. Karim Lahidji, FIDH-ko Lehendakaria

59. Joel Labbé, Morbihan-eko senataria (EELV)

60. Jean-Christophe Lagarde, UDI-ko Lehendakaria eta diputatua

61. Alain, Lamassoure, Les Républicains taldeko europar diputatu, Europako Alderdi popular taldeko frantses delegazioaren Lehendakaria, Buxeta eta Europear arazoetako Ministro ohia

62. Michel Larralde, CFTD Pays Basque-ko Idazkari Nagusia

63. Jean Lassalle, Pirinio Atlantikoetako diputatua

64. Jean-Jacques Lasserre, Senataria eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluko lehendakaria (Modem)

65. Henri Leclerc, abokatu, Giza Eskubideen Ligako Ohorezko Lehendakaria

66. Bruno Ledoux, Libération kazetaren akziodun nagusietariko bat

67. Pierre Lyon-Caen, magistratua, Kasazio Gorteko Abokatu Nagusia, Giza Eskubideen Aholkularitzarako Batzorde Nazionalako kidea

68. Myriam Martin, Ensemble taldeko boz eramailea

69. Noël Mamère, Gironde-ko diputatua (EELV)

70. François Marthouret, aktorea, taula zuzendaria eta filma egilea

71. Jean Pierre Massias, Zuzenbide publikoko irakaslea

72. Xavier Mathieu, aktorea, "Conti"-ko boz eramaile ohia

73. Jean Pierre Mignard, abokatu

74. Ariane Mnouchkine, taula zuzendaria

75. Paul Mollac, Morbihan-ko diputatua (UDB – EELV)

76. Edgar Morin, soziologoa eta filosofoa

77. Gabi Mouesca, euskal preso ohia

78. "Moustic" Christian Borde, artista

79. Marie-José Nat, aktorea

80. Francoise Nyssen, editorea

81. Nuala O'Loan, 1999-tik 2007-ra Ipar Irlandarako polizia gaietarako bitartekaria (ombudsman)

82. Gilles Perrault, idazlea

83. Younous Omarjee, Itsasoz haraindiko Batasuna, Europar ezker bateratuaren Talde Konfederatua/Iparreko ezker berdea

84. Gilles Perrault, idazlea

85. Laurent Pinatel, Confédération Paysanne-ko boz eramaile nazionala

86. Serge Portelli, epailea eta Versailles-eko dei gorteko lehendakaria

87. Serge Rezvani, margolaria, idazlea eta kantagile kantari

88. Mathilde Robert, GENEPI-ko Lehendakaria

89. Denys Robiliard Loire et Cher-eko diputatua (Alderdi Sozialista)

90. Adrien Rome, Jeunes communistes 64-eko Lehendakaria

91. Michel Rocard, Artiko eta Antartika poloei buruzko nazioarteko negoziaketarako ardura duen Frantziako enbaxadorea, Lehen Ministro 1988ko ekainetik 1991ko maiatzera

92. Fabienne Servan-Schreiber, filma produktorea

93. Bruno Solo, antzerkilaria, aktorea

94. Alberto Spektorowski, Tel-Aviv-eko (Israel) unibertsitateko politika zientzietan irakasle, 2000 urteko uztailen iragan zen "David Kanpoa" gailurrean israeldar ordezkari-zako kidea;

95. Jean-Guy Talamoni, Corsica Libera taldeko lehendakaria Korsikako Asanbladan

96. Pierre Tartakowsky, Giza Eskubideen Ligako Ohorezko Lehendakaria

97. Josep María Terricabras, ALE taldeko Lehendakaria Europar Parlamentuan

98. Philippe Texier, ohorezko magistratua, NBE-rako aditua

99. Christian Trouadec, Carhairx-Plouguer-ko auzapeza, departamenduko kontseilaria

100. Michel Tubiana, Giza Eskubideen Ligako ohorezko lehendakaria

101. Lucio Urtubia, Hargin Anarkista

102. Franz Valli, Emmaüs France-ko Lehendakari ohia

103. Véronique Vasseur, La Santé presondegiko mediku buru ohia

104. Michel Veunac, Biarritzeko auzapeza

105. Marion Vernoux, filma egilea eta filma idazlea

106. Marie-Christine Vergiat, Front de Gauche-ko europar diputatua, Groupe confédéral de la Gauche unitaire européenne/Gauche verte nordique

107. Catherine Vieu-Charier, hautetsi komunista eta Alderdi komunistaren Kontseilu Nazionalako kidea

108. Daniel Vigne, filma egilea

109. Michel Wieviorka, ENHESSE (Gizarte Zientziak Ikerkertzeko Eskola Nazionala)-ko Estudio Zuzendari

110. Gabrielle Zimmer, Alemaniako europar diputatua, Europar ezker bateratuaren Talde Konfederatua/Iparreko ezker berde-ko Lehendakaria



Aieteko Adierazpena

"Euskal Herrira etorri gara gaur Europako azken konfrontazio armatua behin betiko gainditzeko garaia iritsi dela eta posible dela pentsatzen dugulako.

Gure ustez, gaur egun, helburu hori lorgarria da euskal herritarren, bere ordezkari politikoen eta Europa zein Nazioarteko Komunitate zabalaren laguntzarekin. Argi adierazi nahi dugu ez garela hona etorri ezer inposatzera eta inork ez dezala pentsa herri honetako herritargoari ezer agintzeko eskubidea edota autoritatea dugunik. Ez gara inor hemengo eragile ezberdinei eta beraien ordezkari politikoei zer egin behar duten esateko.

Halaber, fede onez etorri gara eta espero dugu gure herriek eta jendarteek, baita besteenek ere, pairatu zituzten gatazka luzeak konponduz eskuratu dugun esperientziatik abiatuz eskainiko dizkizuegun ideiak baliaerriak izango zaizkizuela.

Gure esperientzia horretatik abiatuz, jakin badakigu bortxakeria eta gatazka egoera konpontzea eta bake iraunkorra erdiesteza ez dela inoiz lorpen erraza izatean. Ausardia beharrezkoa da, arriskuak hartzeko borondatea eduki behar da, konpromiso sakonak, esku zabaltasuna eta estatu buru sena behar dira.

Bakea errekontziliazioaren indarra gorrotoan oinarrituriko ohiturei nagusitzean dator; egungo egoeraren eta etorkizun hobearen aukera iraganeko ozpindura baino askoz ere onuragarriagoa denean.

Gure esperientziak erakutsi digunez, bakea eskuratzeko benetako aukera ematen denean, ezinbestean aprobeztatu beharra dago. Gatazka, elkarrizketaren bidez, inolako bortxakeriarik gabe eta demokraziaren eskutik gainditzeko herritargoak bai eta bere ordezkari politikoei egin duten aldarrikapenaren indartzeak aukera hau zabaldu du.

Gure ustez, berrogeita hamar urte baino gehiago iraun duen biolentzia amaitu, eta bake iraunkorra eta justua eskuratzeko aukera une honetan bideragarria eta eskuragarria da.

Honengatik guztiarengatik:

1. ETari dei egiten diogu bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragartzen duen adierazpen publikoa egiteko eta soilik gatazkaren ondorioez aritzeko Espainia eta Frantziako gobernuei elkarrizketarako deia egiteko.
2. Adierazpen hori egingo balitz, dei egiten diegu Espainiako eta Frantziako gobernuei baiezkua eman eta gatazkaren armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarrizketak zabaltzeko.
3. Zabaldu diren zauri pertsonalak eta sozialak sendatzeko lagungarria delako, eginiko minaren aitortzea, biktimen guztien aitortza eta beraien laguntza, eta errekontziliazioan aurrera egiteko urrats sakonak eman daitezkeen eskatzen dugu.
4. Gure esperientziak azaltzen digunez, askotan gatazkak konpontzeko orduan badira bake iraunkorra eskuratzeko lagungarriak diren aztertu beharreko beste gaiak. Ildo horretan, eragile ez bortxatzaileak eta ordezkari politikoak bil daitezkeen iradokitzen dugu, gai politikoak eta gaiarekin zer ikusirik dutenak eztabaidatzeko, herritargoa kontsultatuz, horrek guztiak gatazkarik gabeko aro berria sortzen lagun dezakeelako. Gure esperientziak azpimarratzen duenez, hirugarren parte hartzaileek, begiraleek edota laguntzaileek, elkarrizketa bideratzen laguntzen dute. Hemen ere, gatazkarekin zer ikusirik duten parteek horrela erabakiko balute, elkarrizketa nazioarteko laguntzaileen bidez ere bidera liteke.
5. Errekomendazio hauen bideratzea aztertzeko Jarraipen Batzordea eratzeko prestutasuna adierazten dugu."

Donostian, 2011ko urriaren 17an



Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa taldea

2011ko urriaren 17an, Aieteko Nazioarteko Konferentzia egin zen Donostian. Konferentziaren bukaerari "Aieteko deklarazioa" izenpetu zuten nazioarteko gatazken konponketa lanetan diharduten hainbat buruzagik.

Frantziako Euskal Herriko⁶ hautetsi edota alderdi baten ordezkari garenok onespina eman diegu, bakoitzaren izenean ala gure alderdien izenean, Aieteko deklarazioari bai eta honek biltzen dituen puntuei ere, testu horrek balio zuelako trantsiziozko bide orri gisa bakerako bidean. Horrek bultzatu gaitu elkarren arteko lan baten eramatara Aietez geroztik, 2011ko urriaren 20an ETA-k eman zuen su etena-
ren ondorioz hasitako bake prozesuari ekarpen baten egiteko gure engaiamendu azkarraren bidez.

Elkarrizketa prozesu horretan, Aieteko deklarazioan aurkitzen ziren puntuak garatu ditugu eta bake prozesuari ekarpen geniokeenaz gogoeta bat eraman dugu. Hemen aurkezten dugun dokumentuan puntu ainitzetan lortu dugun adostasuna nabaritzen da. Proposamenak ere ekartzen ditu, gure ustez Frantziako Euskal Herriko jendartean onarpen zabala lor lezaketenak.

Gure nahia bidean den prozesuari ekarpen baikor baten egitea da, elkarbizitzaren alde neurrien hartzeko egiazko aukeren argitara ekartzea eta bake iraunkor baten oinarri sendoen abiatzea Euskal Herri osoan.

Dokumentua izenpetzen dutenak :

Jean-René Etchegaray, Baionako auzapeza (alderdi zentrista)

Kotte Ecenarro, Hendaiaiko auzapeza eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakari ordea (PS)

Max Brisson, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea, Miarrizko herri hautetsia

Frédérique Espagnac, Pirinio Atlantikoetako senataria (PS)

Jean-Jacques Lasserre, Pirinio Atlantikoetako senataria, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea eta Hautetsien Kontseiluko lehendakaria (alderdi zentrista).

Xabi Larralde, Sortuko arduraduna Ipar Euskal Herrian

Jakes Bortayrou, Abertzaleen Batasuneko arduraduna

Michel Larralde, CFDT Euskal Herriko idazkari nagusia

Jean Lissar, Europa Ekologia Berdeak (EELV) Euskal Herriko bozemailea

Marc Oxibar

Jean-Pierre Etcheverry, CFDT Euskal Herriko idazkaritzako kide

³⁰ Euskal Herri frantsesa, Ipar Euskal herria, Iparralde ... Lur honen deitzeko manierak aintzak dira eta aktoreen ideia eta xede politiko ezberdinak irudikatzen dituzte zazpi probintzi historikoetaz ari garenean. Ez bata ez bestea ez bazaie hemen bildutako aktore guztieri komeni, "Frantziako Euskal Herria" deitura erabiltzen dugun dokumento honetan, bereixketa guttien sortzen duen izena baita.



1. Frantziako gobernu eta ETArekin arteko elkarrizketa

Gatazkaren konponketan Frantziaren parte hartzea beharrezkoa izanik, Frantziako gobernuak ETArekin elkarrizketaren partaide izan behar du. Lehen denbora batean, eta elkarrizketak ahal bezain ongi pasa daitezten, maila pribatu batean eginen dira. Aurrerapauso nabarmenak emanak izanen direnean, orduan maila publiko batera pasa daitezke.

Ondoko puntuak aipa daitezke elkarrizketa prozesu horretan:

- A)** Gaurko marko juridikoaren barnean eta Giza eskubideak errespetatuz hartu daitezkeen neurriak:
- Auziperatuak izan diren preso guztien bai eta auziaren zain diren presoek hurbilketa, elkartzeko eta preso sartua den pertsonaren eskubideen salbuespenik gabeko aplikazioa.
 - Baldintzapeko edo behin-behineko askatasun neurriak ukan ditzaketen pertsonen libratzea, eri diren edota kondena bukatzean duten presoek ere.
 - Presoen ber gizarteratze plan bat (lana, etxebizitza, erretretarako laguntzak...) Erakunde publikoek apailaturik.
- B)** Adostasun politikoa eta marko juridiko berria eskatuko duten neurriak :
- Instanzia berezitu baten sorrera, ondoko auziak trinkatzeko :
 - kondena ukana duten bainan baldintzapeko askatasun neurriak eska ez dezaketen presoek askapenerako baldintzak bai eta auziaren zain bainan behin-behineko libratzea lortzen ahal ez dutenak ere.
 - errefuxiatuek beraien bizilekuaren libreki hautatzeko eskubidea
 - Prozedura polizial eta juridikoen gelditzea ETA-ko militanteen aurka eta hauen egoeren ikertzea kasuz kasu.
 - Delitu politikoen kentzea Euroaginduen aplikaziotik.
 - Euskal gatazkari loturik dauden kasuetan Euroaginduen aplikazioan derogazio sistema bat sortzea.
 - Epe luzean amnistia lege baten sortzea euskal gatazkari loturik dauden kasuentzat.
- C)** ETArekin jardun armatuaren bukaerari lotutako neurriak
- Nazioartean kontrolpean Frantziako gobernu eta ETArekin arteko akordioa, Frantziatik ETA-ko azpiegiturak nola desegin eta desarmatu argituko dituzten baldintza eta egin moldeen definitzeko eta bururaino eramateko.

2. Gatazkaren ondorioak eta berradiskidetzea

“Egia eta berradiskidetzea” motako berezilaritza talde bat sortu behar litzateke, gatazkari lotutako gertakariak argitzeko, biktime guztien sufrikarioaz ezagupen orokorra bermatzeko eta xuxentze/ordaintze bide ezberdinen definitzeko (soziala, ekonomikoa...).

Berradiskidetze arazo aipatu behar litzateke bake prozesuaren hasieratik eta prozesuan inplikatuak diren aktore bakoitzaren erritmoak errespetatuz.

Prozesu horretan gobernuaren enplegiamendua nahitaezkoa izanen da.

3. Frantziako Euskal Herriaren kuadro juridiko, politiko eta instituzionala

Frantzia mailan, deszentralizazioaren legegaren 3. urratsak eztabada ideki du eta Frantziako Euskal Herriaren dako koadro instituzional egokiena definitzeko aukera eman du : estatutu bereziko lurralde kolektibitate. Lurralde kolektibitatearen proposamenak adostasun politiko zabala eta jendartearen inplikazio azkarra lortu ditu.

Instituzioen antolaketaren arloan lege aldaketa garrantzitsuak oraindik etortzekoak direlarik, gaur egun beste aukera batzuk ere eztabaidatzen ari dira.

Hala izanik ere, Frantziako Euskal Herriari marko instituzional berezi baten ematea bake iraunkorra bermatzeko etapa baikorra izanen da.

2014ko urriak 24ean, Baionan izenpetua

Notak



International
Contact Group



Berghof Foundation

